

## **2011-05-19ko EZOHIKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta hamaikagarren urteko maiatzaren hemeretziaren, arratsaldeko 20:00ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Jose Luis Olano Zubeldia, Agustin Zubeldia Iraola, Eugenio Loidi Garmendia jaunak.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Aitor Lasa Olalde eta Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

**AURREKO AKTAK ONARTZEA (11-03-24; 2011-04-19).**- 2011ko martxoaren 24ko eta 2011ko apirilaren 19ko ezohiko saioen akten zirriborroa ikusita, udalbatzak aho batez onartzea erabaki du.

### **BIGARREN GAIA**

#### **ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak honako dekretuen berri eman dio udalbatzari:

-2011-03-11ko 27/11 Dekretua: Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota %50eko hobaria ematea.

-2011-03-21ko 28/11 Dekretua: Jesus Igartua Ibarbiari etxebizitzan leihoak aldatzeko baimena ematea.

-2011-03-22ko 29/11 Dekretua: Euskalteli telekomunikazioetarako kanalizazio lanak egiteko baimena.

-2011-03-24ko 30/11 Dekretua: Mejoras Energeticas S.A. eta Alquienvasen gastuen xedapena onartzea.

-2011-03-28ko 31/11 Dekretua: Joxean Iturgintza-Beroguzki S.L., J.A. Huici eta Sare Berri S.L.L.-en gastuen xedapena onartzea.

-2011-03-30ko 32/11 Dekretua: Hiled Soluciones Luminarias de Alto Rendimiento S.A. enpresari ematea herriko argien sarearen energia

eraginkortasuna hobetzeko.

-2011-03-30ko 33/11 Dekretua: Alex Lasari haurtzaindegian izandako gastuaren %25rekin laguntzea.

-2011-03-30ko 34/11 Dekretua: Esteban Zubiriari terreza konpontzeko baimena ematea.

-2011-04-04ko 35/11 Dekretua: Antonio Lasari baimena ematea udaleko landa pista erabiltzeko.

-2011-04-06ko 36/11 Dekretua: martxoko fakturen onarpena.

-2011-04-08ko 37/11 Dekretua: euskara teknikaria lanpostuaren deialdian onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren onarpena.

-2011-04-08ko 38/11 Dekretua: dinamizatzaile kulturala lanpostuaren deialdian onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren onarpena.

-2011-04-14ko 39/11 Dekretua: Laugas S.A., Carpinteria Atari S.L., Mutualia eta II. Kirol asteko gastuen xedapena onartzea.

-2011-04-14ko 40/11 Dekretua: Naturgasi 1.458,89€ likidatzea, 2011ko 1. Hiruhileko tasagatik.

-2011-04-15ko 41/11 Dekretua: Javier Rodriguezi ibilgailu gaineko zergaren kuotan hogeita bost urteko antzinatasunagatik hobaria ematea.

-2011-04-15ko 42/11 Dekretua: Etxezarreta kalea 7-9-11-ko eraikinetako kanaloiak seilatzeko baimena ematea.

-2011-04-19ko 43/11 Dekretua: Share kalea 7an 6 udal etxebizitza tasatuen zozketan parte hartuko dutenen behin behineko zerrenda onartzea.

-2011-04-20ko 44/11 Dekretua: Laskibar Bailara 2-11 pabeloiean bainua jartzeko baimena ematea.

-2011-04-20ko 45/11 Dekretua: Kale Nagusia 6an atarian bisera jartzeko baimena ematea.

-2011-04-29ko 46/11 Dekretua: Naturgasi 7.223,61€ likidatzea, 2011ko 1. Hiruhileko tasagatik.

-2011-05-05ko 48/11 Dekretua: gizarte laguntzaile lanpostuaren deialdian onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren onarpena.

-2011-05-10eko 49/11 Dekretua: apirileko fakturen onarpena.

-2011-05-12ko 50/11 Dekretua: Share kalea 7an 6 udal etxebizitza tasatuen zozketan parte hartuko dutenen behin betiko zerrenda onartzea.

-2011-05-12ko 51/11 Dekretua: Aizpurua jatetxeari mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena ematea.

-2011-05-12ko 52/11 Dekretua: euskara teknikari lanposturako probak egiteko datak eta tokia onartzea.

## **HIRUGARREN GAIA**

### **2010. EKITALDIKO UDALEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN KONTUA EMATEA.**

2011ko maiatzaren 11ko 47 zenbakidun Alkatearen Dekretuaren berri ematen da:

“2010eko ekonomia-ekitaldiko Udalaren Aurrekontuaren likidazioaren

berri eman dio Alkateak Udalbatzari, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Alkatetzak Dekretu bidez onartuta eta honako hau esaten duena:

“Udal honen 2010eko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak egin duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### EBATZI DUT

**Lehena.-** Udal honen 2010eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2010-12-31n:		1.089.365,01
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2010-12-31n:		111.,164,97
Aurrekontuko zordunak :	100.493,09	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	10.671,88	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2010-12-31n:		887.927,97
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	20.253,88	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	866.263,63	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	1.410,46	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		312.602,01
5.- Saldo kobragaitzak:		18.580,88
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		294.021,13
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		294.021,13
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		-205.216,81
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		0,00
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		281.718,48
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		76.501,67
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		0,00

15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	0,00

**Bigarrena.**- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.**- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Halaber, Idazkari-kontuartzailleak txosten bat egin du adieraziz Udala Finantza-orekan dagoela, Aurrekontu Egonkortasunaren legearen arabera.”

Hau izapide-egintza bat da.

## LAUGARREN GAIA

### IRURAKO UDALAREN 2011 EKITALDIKO AURREKONTUAREN 1. KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Alkatetzak 1. kreditu aldaketaren espedientearen proposamena jakinarazi du, udal honen 2011rako Aurrekontuaren barruan, eta idazkari kontu-hartzaileak eman du honen berri.

Horiek horrela, Udalbatzak ondokoa erabaki du aho batez:

Lehen.- Behin-behineko izaeraz onartzea 1. kreditu aldaketaren espedientea, udal honen 2011rako Aurrekontuaren barruan. Honela laburbilduko litzateke kapituluka:

A) Gastuak handitzea: 220.000€

-2 kapitulua.- Gastu Arruntak: 50.000€

-6. kapitulua.- Inbertsio Errealak: 170.000€

B) Finantzaketa:

1.- Sarrerak handitzea: 7.000€

2.- 2010eko likidazioko kreditu-soberakina: 213.000€

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 lanegunetan zehar Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez, erreklamazioak aurkez ditzaten. Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartutzat joko da.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Erabaki hau izapide-egintza da.

## BOSGARREN GAIA

### UDAL DEPOSITOEN ZAINGO ETA USTIAKETARAKO LANKIDETZA HITZARMENA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREKIN IZENPETZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Udal-Depositoen zaingo eta ustiaketarako lankidetzak hitzarmena aurkezten du Gipuzkoako Ur Kontorsorioak.

Hori ikusita eta aho batez udalbatzak hau erabakitzen du:  
Lehengoa.-Onartzea hitzarmen hau.  
Bigarrena.- Alkatea izendatzea hitzarmen hau sinatzeko.  
Akordio hau erabatekoa da administrazio bidean.

### **SEIGARREN GAIA**

#### **IRURA UDALEKO LARRIALDIKO OINARRIZKO PLANA, ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-**

Irura Udaleko Larrialdiko Oinarrizko Plana aurkezten da eta udalbatzak onartzen du eta bere tramitazioa egitea agintzen du.

Akordio hau erabatekoa da administrazio bidean.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 21:15ean eman da amaitutzat bilera.  
Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari nauzuen honek dena  
EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA